

KULTUR ANIZTASUNAREN V. FOROA

**2020-09-07 – KONDESTABLEAREN
JAUREGIKO EKITALDI-ARETOA**

IRUÑEKO UDALEKO HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA
ETA GAZTERIAKO ALORRA



TXOSTENAREN EDUKIA

SARRERA: DATU OROKORRAK	3
SARRERA, ALORREKO ZINEGOTZI ORDEZKARI FERNANDO SESMAREN ESKUTIK	3
PARTAIDETZAKO TEKNIKARI AINHOA GUELBEZUREN PARTE-HARTZEA.....	4
GALDE-ESKEEN LEHEN BLOKEA	5
PARTAIDETZAKO TEKNIKARI AINHOA GUELBEZUREN PARTE-HARTZEA.....	10
GALDE-ESKEEN BIGARREN BLOKEA	12
PARTAIDETZAKO TEKNIKARI AINHOA GUELBEZUREN PARTE-HARTZEA.....	13
FOROAREN AMAIERA	13
ERANSKINA: ZUZENEKO EMANKIZUNA	13
IRUDIAK.....	16



SARRERA: DATU OROKORRAK

Data: 2020/09/07

Ordua: 18:00

Tokia: Kondestablearen jauregiko ekitaldi-aretoa. *Streaming* bidez Youtubeko kanalean.

Udal-ordezkarriak: Silvia Velasquez (PSN) eta Maider Beloki (EH Bildu) bertaratu dira.

Udal-alorrak: Mahaian, saioa gidatzen aritu dira Hezkuntza, Gazteria eta Herritarren Partaidetzako Alorreko zinegotzi ordezkari Fernando Sesma eta alor bereko teknikari Ainhoa Guelbenzu.

José Luis Mosquera (Kultura) eta Elena Mozaz (Gazteria) ere bertaratu dira.

Aurrez aurre egon diren entitateak (8)

- EH11 Kolore.
- Tinkus San Simón elkarte.
- Perú Arte.
- Kalinka elkarte.
- Mujeres del Maiz elkarte.
- Salay Bolivia.
- UPJ-UGT Unión de Jubilados y Pensionistas.
- ASVENA – Alpargatika.

SARRERA, ALORREKO ZINEGOTZI ORDEZKARI FERNANDO SESMAREN ESKUTIK

Sesmak ongietorria eman die bertaratuei eta streaming bidez ikusten ari direnei. Hasiera batean foroa apirilean egitea aurreikusita zegoen, baina osasun-egoera zela eta ezin izan zen egin.

Ondoan eserita duen Herritarren Partaidetzako teknikaria eta streaming bidez dagoen Alorreko zuzendaria aurkeztu ditu. Eskerrak eman dizkie hala aretoan nola online dauden alderdi politikoetako kideei.

Sesmak adierazi du aurten Udalak bultzada bat eman nahi diola Osoko Bilkurak urtarrilean onetsi zuen Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduari. Ildo horretan, Alorrek garatu dituen ekintzen berri eman du:

- Partaidetzako erregelamenduaren gida bat argitaratu da, hobe ulertu dadin. Azalpen-bideo bat ere argitaratu da.
- Herritar aktiboen errolda abiatu da, elkarte eta kolektiboen parte-hartzea eta zenbait alderditan interesa duten norbanakoena aktibatzeke.
- Elkarte-ehun osoak egun duen egoera ezagutu da, hainbat arlotan, hala nola pandemia nola igaro duten, nolako eragina izan duen haien jardueretan, eta abar. Alorrek inkesta bat egin du informazio hori biltzeko.



- Lurraldeko eta sektoreko partaidetza-organoak bultzatu dira, gaur egiten ari dena, kasurako.

Sesmak aipatu du helburu nagusia dela hiriaren ordezkartzarik handiena duen organoa, Hiriko Gizarte Kontseilua, bultzatzea, bertan egonen baitira ordezkaturik Iruñeko hiriko organo guztiak. Era berean, hura abiatze aldera demokrazia partizipatiboaren tokiko behatokia bultzatuko da.

Parte-hartzea amaitzeko, herritarren partaidetzako teknikariari hitza eman dio Alorrak eta elkarteek aurten lankidetzan egindako lanaren balantzea egin dezan.

PARTAIDETZAKO TEKNIKARI AINHOA GUELBEZUREN PARTE-HARTZEA

Bertaratuei eta streaming bidezko ikusleei agur egin eta eskerrak eman ondoren, foroan parte hartzeko jarraibide batzuk eman eta gai-zerrendari heldu dio.

Alorra aurkeztu du, zinegotzia eta zuzendariak berriak baitira; orain arte landutakoaren balantzea egin eta onlineko inkesta baten bidez jasotako proposamen, iradokizun eta abar berrien balioespena egin du, eta, azkenik, Alorrak zer landu nahi duen azaldu du, kultur aniztasuneko sektoreko organoaren eraketa aintzat hartuta.

Guelbenzuk aurten egindako jardueren berri eman du, noiz eta osasun-larrialdiak baldintzatu dituen unean; maiatzaren 21ean Kultur Aniztasunaren Nazioarteko egunaren karietara egindako bideoa aipatu du, bai eta “bozgorailua” ekimena ere, zeinetan kultur aniztasunarekin loturarik ez duten elkarteek ere parte hartu zuten. Herritarren partaidetzako dirulaguntzak ere aipatu ditu.

Behin jarduera nabarmenduak aipatuta, bertaratuei hitza eman die egindako jarduerak partekatu, zein egoeratan dauden esan dezaten, eta abar.



GALDE-ESKEEN LEHEN BLOKEA

Atal honetan guztira 10 lagunek hartu dute hitza:

EGILEA	PARTE-HARTZEA / ERANTZUNA
<p>Asvena - Alpargatika (M)</p>	<p>Ezinegona adierazi du Kulturako Mahaietan kultur aniztasuna ordezkatzeko duen pertsonaren hautaketa dela-eta. Zehazki galdetu du nola hautatu zuten pertsona hori ordezkari gisa.</p> <p>Hautaketa hori egiteko modua deslegitimatua du berriz ere, eta aipatu du mahai horietan landu den informazioa ez zaiola ezein kolektibori bidali.</p> <p>Nabarmendu du Alorrek bidalitako jakinarazpenean esaten dela hautatutako pertsona aniztasunaren foroaren ordezkaria dela. Horren inguruko azalpenak eskatu ditu.</p> <p>Adierazi du, eten digitala dela-eta, kultur aniztasunari dagokionez, hainbat lagunek ez dutela sarbiderik on line egiten diren saio eta jardueretara; horrela, parte-hartzea partziala da, eta galdetu du ea nolabaiteko prestakuntzarik eman behar ote zaien pertsona horiei, gaitu daitezten, beren buruen ordezkari izate aldera.</p>
<p>Udala</p>	<p>Galderari erantzunez, Guelbenzuk azaldu du kulturako mahaietarako ordezkari bat egoteko eskaria Kulturako Alorrek egin duela eta ez duela kultur aniztasunaren taldeak hautatzen, baizik eta Antoniuttirekin lotura duten elkarte-taldeak. Halaber, zehaztu du talde horri deialdia bidali zitzaizola, baita auzoetako jai-batzorde guztiei ere, eta bi lagunek soilik erantzun zuten, horien artean ordezkari izendatua izan denak. Aitortu du agian beste modu batean egin zitekeela.</p> <p>Sesmak esan du hainbat kontu nahasten ari direla. Argitu du Aniztasunaren foroa lehen aldiz deitu dela aurten, eta ez dela aipatzen ari den Kulturako mahai bezalako, bestelako baizik; sanferminetako mahai ere desberdina da, bertan egoten baitira festekin harreman zuzena duten entitateak. Azalpen hori egin du argitzeko Aniztasunaren Foroak ez zituela deitu kulturako mahaiak.</p>



	<p>Mosquerak, aretoan dagoen Kulturako teknikariak, parte hartu du esateko bilera bat eginen dutela kontua argitzeko.</p> <p>Proposamena jaso eta benetako behartzat hartu da. “Prestakuntza nahieran” aipatu du, eta hura Partaidetzako Eskolak egiteko aukera; era berean, parte-hartzaileei jakinarazi die “Zentro” zerbitzua dagoela, eta animatu ditu hara joan daitezen. Jakinarazi du asmoa dela aurrez aurreko parte-hartzearekin jarraitzea, ahal den heinean, eta orain bilera mistoak (aurrez aurre eta on line) egiten ari direla.</p>
<p>UJP – UGT (M)</p>	<p>Gizarte Kontseiluaren inguruan galdetu du, eta esan du ez dagoela ados organo aholku-emailea soilik izatearekin, eta ez betearazlea. Galdetu du zertarako balio duen kontsultatzeak gero ez bada loteslea eta ezin bada gauzatu.</p> <p>Zinegotziak azaldutakoarekin bat, galdetu du zertarako balio duen horrek arazo zehatz baten inguruan salaketa bat egin edo lagundu nahi denean. Non dago Udala kasu horietan eta zer egin dezake?</p>
<p>Udala</p>	<p>Aholku-emailea eta ez-betearazlea izatearen arrazoia da funtzio betearazlea hauteskundeetan hautatutako ordezkariak dagokiela. Ordezkariak partaidetza-organoetara eta herritarren parte hartzera jotzen dute herritarrek gai zehatzagoen inguruan duten iritzia ezagutzeko, eta egindako kontsulta horiek badute eragina eta garrantzia erabaki politikoak hartzeko orduan.</p> <p>Jakinarazi da Udala lan handia egiten ari dela politikoki zein teknikoki. Etxez etxeko arreta egin da, bi aterpe egin dira etxerik gabeko pertsonak behar bezala egote aldera; Zerbitzu Sozialek gastua handitu eta sekulako lana egin dute arazo guztiei erantzuten saiatzeko.</p> <p>Ohartarazi da herritarrek badutela aukera Udalarekin harremanetan jartzeko, arazorik egonez gero, zinegotzi ordezkarien bidez, 010era deituta edo parte-hartzeko beste hainbat bitartekoren bidez.</p>
<p>EH11 Kolore (H)</p>	<p>Harridura azaldu du urtebete igaro ondoren Udalak ez dituelako azaldu kultur aniztasunaren kudeaketari dagokionez dituen helburuak, plan estrategikoak, epeak, metodologiak eta abar. Galdetu du nola bermatu behar duen Udalak herritar guztiendako eskubide, betebeharrak eta</p>



	<p>aukera berberak eskaintzea, edo elkarbizitzaren oinarri den elkar ezagutzea eta errespetatzea. Galdetu du ea noiz ezagutuko den hiriaren errealitate kulturala. Galdetu du zein den plana bereizketak aurrera egin dezan ekiditeko. Urtebete igaro ondoren ez da proposamenik aurkeztu.</p> <p>Zinegotziari erantzunez, aipatu du aurreko gobernuak foro hau bultzatu zuela, eta nahi besteko erritmoa izan ez zuen arren, gutxienez bazuela aniztasuna kudeatzeko eredu bat; era berean, jakin nahiko luke zein den egungo gobernuak duen kudeaketa-eredua. Azkenik, aipatu du ez dela egia denok eskubide berberak ditugula, izan ere, SOS Arrazakeriak elkarteak salatzen duen bezala, hiri honetan bada diskriminaziorik.</p>
<p>Udala</p>	<p>Hitz egiteko lehen txandaren ondoren ekarri diren proposamenak azalduko dira. Plan estrategikoak berekin ekarriko luke kultur aniztasuneko taldeek parte-hartzea, baina gaur egun ez dago plan estrategikorik, ezta aurreko legealdian ere, eta bi urte pasa dira foro hau azken aldiz egin zenetik. Udal honek foroa lehenago deitzeko asmoa zuen, baina COVIDaren ondorioz ezinezkoa izan zen. Eskubideei dagokionez, botere publiko guztiek bermatzen dituzte, ez Herritarren Partaidetzako alor batek. Edozein kasutan, ez dirudi ideia txarra plan estrategiko bat egitea proposatzeak.</p> <p>Zinegotziak galdetu du ea zein zen aurreko Udalaren kudeaketa-eredua; erantzun diote eredu ez-asimilazionista zela, alegia, ulertzea denok gaudela sartuta aniztasunaren barruan.</p>
<p>PSN (M)</p>	<p>Atzerapenarekin bada ere, foroa era mistoan deitzea eskertu du. Aurreko gobernuak aniztasunaz bezainbatean egindako neurrien berri eman eta eskatu du definitu dadila zer den kultur aniztasuna eta zer hartzen duen barne, eta zeintzuk diren kategoria horren barruan dauden kolektiboek dituzten arazo nagusiak. Eskatu du Herritarren Partaidetzako Alorrak egiten dituen ekintzak beste Alor batzuekiko zeharkakoak izan daitezen. Oraindik ere asko dago lantzeko gai horren inguruan, eta momentuz gehiegizkoa da guztiontzat.</p> <p>Aipatu du gobernu-talde hau abiatu zenean ez zela joan kulturen kalejirara, eta uler daiteke, hasiera baitzen, baina bestelako topaketak egin dira eta Udala ez da joan; hemendik aurrera joateko eskatu dio eta bat etorri da aurreko hizlariarekin diskriminazioari dagokionez, eta ildo berean lanean jarraitzera animatu nahi du.</p>



<p>Udala</p>	<p>Bat dator Partaidetzako Alorraren lan-ildoen zeharkakotasunari dagokionez, aniztasunaz bezainbatean ez ezik, gainerako gaietan ere, eta egindako proposamenak jasotzen ditu.</p> <p>laz, egungo gobernuaren Hispanitatearen Egunaren kariatara Basotxoan egindako ekitaldietan egon zen.</p>
<p>Mujeres del Maíz / Nafarroako Migratzaile- mugimendua (H)</p>	<p>Ez dago berdintasunik, eta ezin da egon Kultur Aniztasunaren Fororik hura bermatuko duten berdintasun- eta zeharkakotasun-gunerik gabe; gainera, migratzaileena kolektiborik zaugarrietako bat da, eta COVID-19ak sortutako egoerak kaltetuenetakoa.</p> <p>Foro honek xede du hiri honetan aniztasun horren parte diren pertsona guztien eskubideen eta aukera-berdintasunaren alde lan egitea. Nolako lana egin da horri dagokionez? Helburu hori betetzen duten politiken hutsunea nabari dugu, eta neurriak hartu behar dira, besteak beste hauek: kulturen arteko aisialdi- eta kirol-topaketak gazteentzat, eskola-laguntza, Unibertsitatera sartzeko ikastaro merkeak, Aniztasunaren Behatokia (adibidez, Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia), eta abar.</p> <p>Pandemia-garaian hainbatek egindako lana eskertzen da, baina aniztasun-espazio honetan hartu beharreko norabideaz hausnartu behar da, folkloreak haratago joan eta berdintasunerantz nahiz giza-eskubideen errespeturantz aurrera egiteko.</p> <p>Horrez gain, irtenbide bat eskatu du herritar ezberdinak biltzen dituzten auzoetako zentro komunitarioetarako, pandemian zehar itxita egon baitira.</p> <p>Amaitzeko, Aniztasunaren Foroan egindako eskaerak betetzea eskatu du.</p>
<p>Udala</p>	<p>Ados dago Aniztasunaren Foroa gune folklorikoa baino zerbait gehiago izateko ideiarekin; gainerako ideiak ere bildu beharko lituzke, horietako askok udal-eskumenak gainditzen badituzte ere.</p> <p>Zentro Komunitarioei dagokienez, Komunitate Garapeneko Alorraren pean daude, eta gaur egun itxita daude segurtasun-irizpideengatik; aurreikuspenen arabera, irailean irekiko dira, betiere pandemiaren bilakaera aintzat hartuta.</p>



ASVENA – Alpargatika (M)	Gizarte-mugimenduek lan handia egiten dute pertsona zaurgarriak artatzeko, kalean daudenak, jatekorik ez dutenak, osasun-arretarik ez dutenak... eta Udalaren baliabiderik gabe egiten da. Kolektiboek behar horiei erantzuten diete, komunitateko pertsonen elkartasunari esker, eta horrek agerian uzten du administrazioen eraginkortasunik eza. Udalaren eta elkarteen arteko lankidetzaz bilatu nahi da, kasu guztiei heldu ahal izateko, bai eta lan hori egiteko erakundeen ardura eta estaldura ere.
Udala	Eskertzen da herritarrek pandemia-garaian egin duten lana, eta badakigu boluntarioak oso garrantzitsuak izan direla, laguntza hori gabe ezinezkoa izanen baitzen behar guztiei aurre egitea. Gizarte Zerbitzuak gogor aritu dira eta ari dira lanean konfinamendu-aldian inor artatu gabe ez gelditzeko; hala ere, jakin badakigu kasu guztietan ez dela izan % 100 eraginkorra. Era berean, neurriak hartzen ari dira kutsatzeak kontrolatu eta egoera berrira ahalik eta modurik onenean egokitzeke.
EH Bildu (M)	Pandemian, herritar zaurgarrienak migratzaileak izan dira, besteak beste, eta hasiera-hasieratik egon zen gainerako herritarrekiko arrakala. Auzoetan eta kolektiboetan izandako babes-sarerik gabe, Administrazioa ez zen erantzuteko gai izanen, gobernuan edozein izanda ere. Kolektiboek lan-zama handia izan dute, eta pandemia-aldian modu izugarrian azaleratu da hori. Horretarako, koordinazioa eta baliabideak behar dira, gizarte-zerbitzuek ez baitituzte kasu guztiak artatu. Elkarteek edo herritarrek kaleetan ekitaldiak egiteari dagokionez, Udalak segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatu behar ditu, ekitaldi instituzionaletan egin den bezala. Badago lan handia egiteke herritarrek ekitaldi publikoak neurriak betez egin ahal izan ditzaten.
Udala	Zaurgarritasunarekin eta gizarte-larrialdiekin lotutako kontu guztiak gizarte-zerbitzuen eskumenekoak dira, eta beraiek artatu behar dituzte, edo kasuan-kasuan eskumena duten alorrek.



	<p>Ekitaldi publikoak egiteko baimenak Herritarren Segurtasunean eskatu behar dira, eta horiek segurtasun-neurri jakin batzuk bete behar dituzte. Eta alor horrek jakinaraziko dizkie neurri horiek eskaera aurkeztu duen edozein kolektibo, elkarte edo herritarri.</p>
UJP – UGT (M)	<p>Gizarte-zerbitzuen gaiari dagokionez, uste du aintzat hartu behar direla Administrazioak erabiltzaileei ematen dizkien erantzunak.</p>
ASVENA – Alpargatika (M)	<p>Aurrez aipatutako esperientziaren harira, aipatu du gizarte-zerbitzuen arretan eman daitezkeen antzeko egoerak salatzen jarraituko duela. Horrez gain, galdetu du zer egin behar duen gizarte-larrialdiko kasu bat artatzen ez denean.</p>
Udala	<p>Esku-hartzeen gaia Aniztasunaren Foroa baino haratago doa, gizarte-zerbitzuekin lotuago baitago. Aipatutako kasuari dagokionez, auzo-unitatera bideratu behar da.</p>
EH11 Kolore (H)	<p>Aipatu du Aniztasunaren Foroak landu beharko lituzkeela jatorriak edo kulturak modu baztertzailan eragina duten egoeretan, eta adibidetzat aipatu ditu etxera sartzea edo gizarte-igoerak, besteak beste. Amaitzeko, adierazi du hori Foroaren helburuei edo plan estrategikoari lotuko litzaiekeela.</p>

PARTAIDETZAKO TEKNIKARI AINHOA GUELBEZUREN PARTE-HARTZEA

Guelbenzuek, hasteko, egindako inkestaren¹ emaitzen berri eman du:

- Kultur aniztasunaren agerikotasuna (kulturen kalejira, eta abar): **3 boto.**

(1) Oharra: Inkestaren emaitzak zuzenean irakurri ziren, eta guztira hamar boto eman ziren. Gerora bi lagun gehiagok bozkatu zuten, beraz, guztira 12 bozka egin ziren. Ekarpenak letra etzanez ageri dira.



- Herritarren partaidetza eta kultur aniztasuna: Instituzionalizatzea, sustatzea, lankidetzaren publiko-soziala, eta abar **(4 boto)** (+ boto 1)
- Bestelako kontuak **(3 boto)** (+ boto 1)
 - Kultur aniztasunari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko mahai-inguruak sortzea **(boto 1)**
 - Prestakuntza gaitasun digitaletan eta partaidetza-tresnetan **(boto 1)**
 - Kultur aniztasuna lantzea gazte migratzaile eta ez-migratzaileen denbora libre eta aisiaren garapeneren antolaketan **(boto 1)**
 - *Herritarrak eta eskubideak* **(boto 1)**

Gainera, Partaidetzako teknikariak Youtubeko zuzeneko txatean aipatutakoaren laburpen bat egin du, eta, aipatu ditu, besteak beste, kultur aniztasunaren eredia definitzeko beharra eta landu daitezkeen udal-eskumenak (errolda, polizia-kontrolak, eta abar); iruzkin horiek eta aurrez aurre landutakoa aintzat hartuta, adierazi du interesgarria izan daitekeela alorren arteko lankidetzaren kultur aniztasunaren arloan.

Jarraian, Guelbenzuk jakitera eman du Partaidetzako Eskolaren programazioa eta esan du honako gai hauen inguruko prestakuntza sartuko dela: zurrumurruek aurka joatea, kulturarteko komunikazioa, pertsonen arteko harremanak kultur klabeak (ikastaro hori udal-langileei ere eskainiko zaie) eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen parte-hartzea sustatzea. Halaber, prestakuntza nahieran erabiltzeko aukera aipatu du, horrela hala elkarte-ehunaren nola norbanakoen eskaerei eta beharrei erantzuna emateko.

Bestalde, partaidetzako teknikariak goraiatu du Udalaren eta elkarte-ehunaren arteko harremana noranzko bikoia izatearen garrantzia, eta aipatu du Alorrek hiriko Gizarte Kontseilua aktibatu nahi duela; amaitzeko, jakinarazi du Foroko kideei galdetuko zaiela zeintzuk diren ospatu edo landu beharreko data esanguratsuak.



GALDE-ESKEEN BIGARREN BLOKEA

Bigarren bloke honetan guztira bost lagunek hartu dute hitza:

EGILEA	PARTE-HARTZEA / ERANTZUNA
Asvena - Alpargatika (M)	Aniztasunaren arloan data garrantzitsuei dagokienez, aipatu du aurreko foroetan adostasuna lortu zela landu beharreko egutegiaren inguruan, nazioarteko datak aukeratu zituztelarik. Uste du lan hori jada egina dagoela.
PSN (M)	<p>Datez bezainbatean, uste dute beste ekintza batzuk egin daitezkeela, eta gogoratu ditu, esaterako, festa nazionaletara Udaleko ordezkariak joaten zirela.</p> <p>Bigarren parte-hartzean eskatu du ekitaldiak egin daitezela honako hauen artean: auzo-elkarteak, peñak, kultur aniztasuna lantzen duten elkarteak, eskualde-etxeak... horrela topaketak sortzeko jatorri ezberdineko herritarren artean.</p>
Udala	Hain zuzen, herrialde edo elkarte ezberdinetarako data esanguratsuen egutegi bat proposatu daiteke, horrela aldiberekotasunen berri izan eta horiek ekiditeko.
EH11 Kolore (H)	Aniztasunaren eredu inklusiboaren barruan, komunitate ezberdinen festa eta ospakizunen aitorpen instituzionala eskatu du, Iruñeko hiriaren festatzat har daitezen.
Kalinka elkartea (M)	Proposatu du Udalaren webgunean gune bat gaitzea elkarteen ospakizunen eta jardueren berri emateko, eta Herritarren Partaidetzako teknikari batek kudeatu dezala.
EH11 Kolore (H)	Aurrez folkloeari buruz egindako aipamenen inguruan, zeinak gutxiesgarritzat jo baititu, azpimarratu du hainbat jatorritako folkloreen ikusgaitasuna eta inklusioa erabakiorra dela imaginario kolektibo identitarioaz bezainbatean.



Udala	Ez da inolaz ere folklorikoa gutxietsi edo horien garrantzia murrizteko asmorik egon; aurreko parte-hartzean aipatu da ez dela arreta soilik horretan jarri behar. Apustu eginen da parte-hartzea norbanakoen artean bideratzeko, eta horretarako aurrez aipatu den herritar aktiboen errolda erabiliko da partikularren proposamenak eta ekimenak biltzeko.
-------	--

PARTAIDETZAKO TEKNIKARI AINHOA GUELBEZUREN PARTE-HARTZEA

Partaidetzako teknikariak Herritarren Partaidetzako Erregelamendu berriaren inguruko informazioa eman eta azaldu du orain arte lanean aritu diren organoak, hala nola Aniztasunaren Foroa, sektoreko organo gisa formalizatu behar direla, bi pertsona hautatuz, hiriko Gizarte Kontseiluan egon ahal izateko.

Formalizazio hori egiteko, barne araubideko erregelamendu bat onartu beharko da; hori horrela, hurrengo Foroan helduko zaio horri.

FOROAREN AMAIERA

Fernando Sesmak Foroan bertaratu diren guztiei (fisikoki eta on line) eskerrak eman dizkie, eta aipatu du ekarpenak aintzat hartu eta landuko direla aniztasunaren arloko partaidetza ahalik eta hobekien gauzatu dadin.

ERANSKINA: ZUZENKO EMANKIZUNA

Bertaratuak/Youtubeko zuzenekoaren bitartez identifikatutako parte-hartzaileak (8)

- Geroa Bai
- Asocolon
- Nafarroako Migratzaile-mugimendua
- Aproena
- PIRINA dantza folklorikoen taldea
- SOS Arrazakeria
- Unidos Colorit

Herritarren Partaidetzako Alorreko Youtubeko kanalean streaming bidez emandako emankizunari lotutako txatean (esteka [hemen](#)), guztira 46 iruzkin jaso dira.



comentarios. Parte-hartze, iradokizun eta proposamenetan bildu dira, honelaxe:

EGILEA	PARTE-HARTZEA / ERANTZUNA
<p>Nafarroako Migratzaile- mugimendua</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Milagrosa eta Buztintxuri auzoetan aisia eta denbora librean antolatzean kultur aniztasuna lantzea gazte-elkartekin. • Kultur aniztasunari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko mahai-inguruak sortzea, baterako existentziaz eta lurralde berean bizitzeaz haratago. • Kultur aniztasuna berez loturik dago eskubide-berdintasunarekin eta egiturazko arrazismoaren kontra lan egitearekin. • Garrantzitsua da guri helaraztea Udalak kultur aniztasuna kudeatzeko erabiltzen dituen proposamenak eta politika publikoak. • Erabakigarria da zehaztea zein den kultur aniztasuna kudeatzeko Udalak erabili nahi duen kudeaketa-eredua. • Zer egingen du kultur aniztasunaren alorrak eskubideen eta berdintasunaren alde lan egiteko pandemia eta osasun- zein ekonomia-krisi garai honetan? • Baina Udalen eskumena da udaltzaingoek profil etnikoak egitea. Profil etnikoen arabera kontrolak: eskubide- eta tratu-berdintasunaren kontra doazen jarduerak baztertzailak. • Udal-ekumen hauek guztiak eta beste batzuk sartu beharko dira oraindik ere definitzeko dagoen kultur aniztasunaren kudeaketa-eredu batean. • Ez nago ados lau data besterik ez dituen egutegi batekin. Agenda bateratua gune partekatu bat jartzea da.
<p>Aproena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikusi beharko da entitateei zer nolako ikastaroak eta prestakuntza eskaintzen zaien. Aurrez egin zen Mapaketarekin lan egin beharko da, eta entitate gisa ditugun benetako beharrak ikusi...



SOS
Arrazakeri
a Nafarroa

- (Eskubide, prestazio eta zerbitzuak berdintasunean eskura izatea) uste dugulako Arrazismoa egiturazkoa dela, eta zati batean Atzerritartasun Legean instituzionalizatuta eta gauzatuta dago. Pertsonen jatorria, arrazializazioa, generoa eta egoera sozioekonomikoa dela-eta dauden hesi administratibo, sozial eta juridiko guztiei buruz ari gara. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunaz edo ezintasunaz ari gara, eta beste zenbait eskubide eskuratzekoaz, hala nola errolda, gizarte-babeserako sistema, eta abar. Uste dugu horietako batzuk udal-eskumenekoak direla, eta beste batzuk haratago doazela. Zentzu horretan, baloratuko genuke lantalde batzuk berrabiatzea, besteak beste, “Erabateko herritartasuna eta eskubideak” izenekoa.
- SOS Arrazakeria Nafarroan uste dugu ezinbestekoa dela guztion eskubide-berdintasuna bermatzeko abiatu behar diren mekanismoak modu integrarean berreraikitzea. Eskubide-berdintasuna ez dago bermatuta, eta are gehiago, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiak eta antzekoek askotariko arrakalak agerian utzi eta betikotu egingen dituzte. Horregatik, premiazkoa da funtsezko eskubideak eta aniztasuna (hitzaren zentzu zabalenean) guztiaren erdian jartzea, plan eta planteamenduak egituratuko dituen ardatz gisa.
- Udalaren eskumenekoak dira: Gizarte Enplegu Babestua lortzea arautzea, etxebizitza eskuratzeko bermatzea, kontuan ez hartzea egoera administratibo ezohikoak. Udalaren eskumenekoak dira: jatorri/arrazializazioa dela-eta bazterkeriarik gabeko guneak bermatzea polizien jarduketa eta esku-hartzeetan, aisia-tokietan, Udalaren espazioetan, eta abar... Udalaren eskumenekoa da: herritar guztiendako irisgarriak diren espazioak gaitzea. Udalaren eskumenekoa da: bermatzea hala auzotar guztien erroldatzeko eskubidea nola hemen bizi diren guztien eskubide-berdintasuna. Udalaren eskumenekoak dira: organo eskudunari aurkeztea herritarren eskaerak eta erreklamazioak, Administrazioen betebeharrak betetzen direla zaintzea eta elkarbizitza bultzatzea.

Gainera, Asocolon, Aproena eta Pirina entitateek publikoki eskertu dute Foroa zuzenean ematea.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

ÁREA DE EDUCACIÓN, PARTICIPACIÓN
CIUDADANA Y JUVENTUD

Participación Ciudadana

HEZKUNTZA, HERRITARREN
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO
ALORRA

Herritarren Partaidetza

IRUDIAK

